


Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %0,9 gehitu ziren 2023. urte osoan

2023ko azken hiruhilekoan, salmentak %0,3 handiagoak izan dira 2022ko azken hiruhilekoan baino

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmentak %0,3 gehitu dira 2023ko laugarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, egutegiaren ondorioak atera ondoren eta prezio finkoetan. Zerbitzuguneak kontuan hartu gabe, salmenten urte arteko hazkundea %1,0koa izan da.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, eta dagozkion urtaro-ondorioak kenduta, urteko laugarren hiruhilekoko txikizkako merkataritzaren salmenta-indizeak ere %0,3 egin du gora.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIt)

Urteko azken hiruhilekoan, *Elikaduran* eta *Gainerako produktuetan* prezio finkoetan egindako salmentak %0,9 eta %1,1 igo dira, hurrenez hurren, 2022ko hiruhileko beraren aldean. *Automobilgintzarako erregaia* sektorean, aldiz, salmentak aurreko urteko hiruhileko berean ikusitakoak baino %8,4 txikiagoak izan dira.

2023ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, desestazionalizatutako terminoetan eta prezio finkoetan, *Gainerako produktuetan* salmentak %2,0 igo dira; *Elikaduran* eta *Automobilgintzarako erregaian*, berriz, %1,1 eta %3,3 egin dute atzera, hurrenez hurren.

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). 2023/IV

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	At / At-4
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	0,3	0,3	0,9
Araba/Álava	-0,1	0,4	-1,3
Bizkaia	0,2	0,1	2,0
Gipuzkoa	0,6	0,5	0,2
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Janariak	0,9	-1,1	1,2
Elikagaien saltoki espezializatuak	1,3	-0,2	-0,9
Elikagaiak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	0,6	-1,8	2,1
Gainerako produktuak	1,1	2,0	1,4
Pertsonaren ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	2,8	0,5	3,8
Etxearen ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	-1,5	1,7	-2,4
Kontsumoko beste ondasunetan espezializatutako establezimenduak	6,0	0,9	5,8
Gainerako produktuak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	-0,8	-1,2	1,7
Automoziorako erregaia	-8,4	-3,3	-3,6
INDIZE OROKORRA gasolindegirik gabe			
	1,0	0,5	1,3
LANGILERIA-INDIZEA			
Euskal AE	1,1	-0,2	1,3

(p)Behinbehineko datuak

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

At/A(t4) Lehen hiruhilekotik behatutako azkenekora arte metatutako aldiko urte arteko tasa (At) aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean

Data 2024ko Otsailaren 8a

Iturria: Eustat. Txikizkako Merkataritzaren Indizea (BMIT)

Elikadurako txikizkako merkataritzaren barruan, elikagaietan, edarietan eta tabakoan espezializatutako merkataritzako salmentak (fruta-dendak, harategiak, arrandegiak, etab.) %1,3 gehitu dira 2022ko laugarren hiruhilekoaren aldean. Elikagaiak, edariak eta tabakoa nagusi diren txikizkako merkataritza ez-espezializatuko salmentak (batez ere supermerkatuak eta hipermerkatuak), bestalde, %0,6 igo dira urte arteko terminoetan.

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzaren barruan, bestelako kontsumo-ondasunetan espezializatutako sektorean (besteak beste, kirol-artikuluak, jokoak edo jostailuak) salmentak %6,0 igo dira aurreko urteko laugarren hiruhilekoaren aldean. Pertsonen ekipamenduan espezializatutako sektorean (arropa, oinetakoak, produktu kosmetikoak edo higienekoak) %2,8ko igoera izan da. Aitzitik, Etxeko ekipamenduaren sektorean (etxetresna elektrikoak, altzariak eta telekomunikazio-ekipoak) eta Espezializatu gabeko eta gainerako produktuen sektorean (korrespondentzia edo Internet) salmenta-bolumena %1,5 eta %0,8 jaitsi da urte artean, hurrenez hurren.

Lurralde historikoen arabera, 2023ko laugarren hiruhilekoko salmenta-indizeak urte arteko %0,6ko igoera izan du Gipuzkoan eta %0,2koa Bizkaian. Araban, aldiz, indizea %0,1 jaitsi da urte artean.

2023ko laugarren hiruhilekoan, Euskal AE osoan txikizkako merkataritzaren sektorean enplegatutako langileak %1,1 gehitu dira aurreko urteko laugarren hiruhilekoaren aldean. Aurreko hiruhilekoaren aldean, aldiz, %0,2ko jaitsiera ikusten da.

2023. urteko balantzea

Txikizkako sektorearen salmentak %0,9 gehitu dira 2023 osoan, salmentak %1,2 hazi direlako elikaduran eta %1,4 gainerako produktuetan. Automobilgintzarako erregaiaren sektorean, aldiz, 2023an metatutako salmentak 2022an ikusitakoak baino %3,6 txikiagoak izan dira.

Lurralde historikoen arabera, txikizkako sektoreko salmentak %2,0 igo dira 2023an Bizkaian eta %0,2 Gipuzkoan. Araban, azkenik, salmentek %1,3 egin dute atzera.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hiruhileko honetako indizea laginaren **%95,0ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62